

AURKEZPENA

Zenbatetan sentitu duzu kirola egiteko gogoia baina, kiroldegira edo gimnasia joateak gogoia kendu dizu? Zenbatetan pentsatu duzu gimnasia joatean bertako pertsonak zutaz egingo dutela barre? Edo zenbatetan eduki duzu etxean gimnasio bat edukitzeko asmoa, baina espazio falta dela eta, ezin izan duzu jarri? Zenbat pertsona uste duzu aurkitzen direla egoera honetan? Askok uste dute gizartearen minoria dela, baina ez, guztiz kontrakoa, askok uste dutena baina askoz ere pertsona gehiago daude egoera honetan, gainera, fitness munduaren igoerarekin oraindik geroz eta gehiago. Guk arazo honi aurre egingo dion produktua sortu dugu, “MIKNA” izeneko. Armairu bat da, baina behin irekitzerakoan, barnean egongo diren elementuak anitzak izango dira.



Gu Nahia Ruiz, Iker Santiago eta Mikel Irizar gara, Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergoko bigarren mailako ikasleak, eta ENED irakasgaian ari gara egiten proiektu hau. Produktu honen sorrera, gizartean kirola eta osasuntsu egotearen igoerarengatik ikusi genuen aukera erreala izan da. Gizartean, fisikoki ongi ikusteak ehundoko igoera izan du azken urteetan, besteak beste, “HYROX” lasterketen eskutik, edota munduan zehar “Run Clubak” izan duten gorakadarengatik. Hortaz, gimnasio batean egin daitezken ariketak egiteko elementuak aurki ditzazkezu armairu baten barnean, esaterako, indarra lantzeko produktuak daude eskuragarri.

Beste alde batetik, gure produktuaren eskutik, fisikoki eta osasuntsuki hobetu dezakezu, modu eroso batean. Gainera, zure indarrean izango duzun garapena eta hobekuntza ehundokoa izango da, kirola egitearen alde ona daukalako eta gimnasio askoren arazoa sahiesten duelako. Era berean, kalitate ezinhobea daukaten elementuekin egingo duzu lan, gure enpresan kalitatea lehenesten dugulako.